






ISTORIO SOZIALA: HERIOTZA







Pertsonak jaio, hazi eta garatu egiten gara.




Pertsonak jaio eta hil egiten gara.







Pertsonak hasieran haurrak gara, gero gazteak, ondoren helduak eta, azkenik, zaharrak gara.









Elaborado por Amaya Áriz Traducción: Miriam Aramendi Garcia
Imágenes Internet info.ana@autismonavarra.com









Pertsonak izaki bizidunak gara.






**Izaki bizidun guztiak jaio, garatu eta
hil egiten gara.**






**Landare eta lore guztiak jaio, garatu
eta hil egiten dira.**





Animalia guztiak jaio, garatu eta hil egiten dira.



Pertsonak jaio, garatu eta hil egiten gara.





Heriotza bizitzaren atal bat da.





**Pertsonak, bizirik dagoen bitartean,
sentitu egiten du eta hotza eta
beroa hautematen ditu.**


Elaborado por Amaya Áriz Traducción: Miriam Aramendi Garcia
Imágenes Internet info.ana@autismonavarra.com




Pertsona bat hiltzen denean, bere gorputza gelditu egiten da.





Bihotza eta arnasketa gelditu egiten dira.






Pertsonak, hiltzen den unetik aurrera, ez du ezer sentituko. Ez du ez hotzik ez berorik sentituko.





Pertsona bat hilda dagoenean, ez du minik, ez du azkurarik eta ezin da triste egon.





Pertsona bat hiltzen denean, bere gorputza baino ez da geratzen.







**Triste egotea normala da. Hil den
pertsona faltan izaten dugulako egoten
gara triste.**





Hil den pertsonarekin hitz egiteko aukerarik ez dugulako, triste sentitu gaitzke.






**Triste gaudenean, pertsonok,
batzuetan, negar egiten dugu.**



**Gerta daiteke zenbait egunetan
negar egitea eta triste egotea.
Hori ondo dago.**





Negar egitea ondo dago. Batzuetan negar egin eta gero hobeto sentitu gaitzke.




Triste zaudenean beste pertsona batekin egotea lagungarria izan daiteke. Besteen besarkadek, batzuetan, lasaitu egiten gaituzte.

Elaborado por Amaya Áriz Traducción: Miriam Aramendi Garcia
Imágenes Internet info.ana@autismonavarra.com



Pictogramas: Sergio Palao Procedencia: ARASAAC (<http://arasaac.org>) Licencia: CC (BY-NC-SA)



**Hobeto sentitzeko, hil den
pertonaren inguruan gauza politak
pentsatzea lagungarria izan daiteke.**



**Elkarrekin igarotako une
dibertigarriez gogoratu
naiteke.**



Poliki-poliki, hobeto sentituko naiz eta irribarre egingo dut hil den pertsonarekin gogoratzean.